



ANDALUZIA

MAPA NORDIK

Patxi Galé

ADEMAS de los Pirineos, la Sierra Nevada es el único macizo de montaña de la península donde podemos hallar cimas por encima de los tres mil metros. Esta línea de montañas forma parte del llamado Sistema Penibético y su punto más elevado –el Mulhacén (3479)– también es techo de la península, por encima del Aneto (3402). Realizar la travesía a pie de todos los tresmiles de Sierra Nevada es una aventura al alcance de todo montañero acostumbrado a caminar, pues apenas hay cimas de dificultad técnica si se escoge la época del año adecuada. No dejarse ninguna cota al hacer esa travesía será tarea más difícil, pues los censos de cumbres, e incluso sus denominaciones y altitudes, no son unánimemente aceptadas por todas las guías, mapas y publicaciones. El presente listado, pretende ser una aproximación a esa lista exhaustiva con la que sueña todo tachamontes...

SIERRA Nevada izeneko mendilerroak hiru mila metroetako kota magikoa gaintzen du tarte luze samar batez, besteak beste, Iberiar Penintsulako punturik altuena erdiesteko. Izan ere, Mulhacén dugu penintsulako gailurrik altuena eta, bitxia bada ere, hurrengoia topatzeko Pirinioetako errege Anetora joan beharra dago, bi hauek baitira penintsulan 3400 metroak gaintzen dituzten tontor bakarrak. Hirugarrena, ordea, berriz ere Sierra Nevadaan aurkituko dugu, Veleta alegia, eta ranking-ean laugarrena ostera ere Pirinioetan izango genuke: Posets...


Sierra Nevada hiru mila guztiak takada bakar batean bisita daitezke hiruzpalau egunetako ibilaldian. Ez dute zailtasun tekniko berezirik eta, beraz, edozeinen esku dagokeen txangoa da. Baldintza meteorologikoak beste mendigune askotan baino hobek izaten dira Andaluziako alde honetan eta, beraz, ekipaje guztia aldean eramanda egin daiteke zeharkaldi osoa. Abenturazaleenek aterpe gordeak saihestea ere posible dute, lo egiteko babesleku libreak erabiliz edo, besterik gabe, mila izarretako vivac ederrak eginez. Arazorik behinena, hori bai, ur eskasia izango da, garaiaren arabera ibilaldian zehar aurkituko ditugun idoi ugarietan ur edangarria topatzea beti ez baita posible izango. Horregatik komeni da, nolana ere, ura potabilizatzeko moduren bat eskueran eramatea, ura irakitea barne.

Jarraian eskaintzen den lerrokadako altitude guztiak Mapa Topográfico Nacional delakoaren 1:25000 eskalako kartografiatik hartu dira (1027-II, III eta IV orriak, 2004ko edizioa). Aipatzen diren UTM koordenatuak, ordea, 30S eremuak dira eta ED50 datum-aren erreferentzia dute.



■ Puntal del Goterón

■ Sierra Nevada Gador aldetik





■ *Elorrieta aterpea*

- **Puntal de Juntillas, Rasero** edo **Cerro de las Tres Lindes** (3143) X.477204 Y.4107836

Gailur nagusia baino iparrerago bigarren mailako **Antecima norte del Puntal de Juntillas** (3119) delakoa dago, X.477428 Y.4108448, eta are iparrerago, **Picón de Jérez** izenaz ezagutzen den puntua (3088) X.477632 Y.4108856. Azken hau, egia esan, gailurra baino gehiago, erpin geodesiko baten kokalekua baino ez da, tontorrek baino ikuspegi zabalagoa omen duena.

- **Horcajo** edo **Cerro Pelado** (3182) X.477576 Y.4106572

Maparen batean El Horcajón aldaera ere irakur daiteke. Xumeak badira ere, bigarren mailako azpigailurrak ditu, alegia: **Antecima norte 1 del Horcajo** (3113) X.477580 Y.4107196, Antecima norte 2 del Horcajo (3112) X.477572 Y.4107112, baita kontrako aldean dagoen **Antecima sur del Horcajo** (3158) X.477575 Y.4106212.

- **Tajos Negros de Covatillas** (occidental) edo **Los Hotelillos** (3115) X.476148 Y.4107836

Maparen batean Cervatillos izena ematen zaio mendì honi, oker. Bigarren mailako gailurrak ditu ekialderago: **Tajos Negros de Covatillas central** (3105) X.476444 Y.4107772 eta **Tajos Negros de Covatillas oriental** (3102) X.476588 Y.4107760.

- **Cervatillos, La Buitrera** edo **Puntal de los Cuartos** (3154) X.475728 Y.4107400

Ez du bigarren mailako gailur bereizgarririk.

- **La Atalaya, Loma de Covatillas** edo **Pico de la Justicia** (3141) X.475420 Y.4106516

Iparraldean badu akota daitekeen azpigailur xumea: **Antecima norte de Atalaya** (3135) X.475448 Y.4106780.

- **El Cuervo** (3147) X.474656 Y.4105932

Maparen batean Atalaya izen nahasgarria ematen zaio, eta beste nonbait osoagoa litzatekeen Atalaya del Cuervo ere aurkitzen dugu. Bigarren mailako azpigailurra du iparmendebaldean, **Mojón Alto** izenekoa (3117) X.474328 Y.4106444. Mapa batzuek, gainera,



■ *Cerro del Caballo eta aterpea*

lehenagoko azpigailur xumea ere akotatzen dute: **Antecima sur de Mojón Alto** (3102) X.474340 Y.4106300.

- **Puntal de Vacares** (3144) X.474450 Y.4104076

Hegomendebalderako gailurrerian akotatu ohi diren bi azpitontor aipa ditzakegu **Antecima sur 1 del Puntal de Vacares** (3106) X.474344 Y.4103940 eta **Antecima sur 2 del Puntal de Vacares** (3077) X.474264 Y.4103812.

- **Los Acucaderos** (3094) X.474175 Y.4103662

Puntal de Vacares nagusiaren azpigailur bezala ere kontsidera genezake. Hala ere, hiru azpitontor ditu. Haietako bi gailur lerro nagusian akotatzen dira: **Antecima suroccidental 1 de los Acucaderos** (3085) X.474148 Y.4103648 eta **Antecima suroccidental 2 de los Acucaderos** (3054) X.474068 Y.4103504, lepotik oso hurbil. Bestea Calderetas izeneko idoiatarako maldan aurkitzen da, **Antecima sur de los Acucaderos** (3061) X.474208 Y.4103640.

- **Puntal de las Calderetas** (3071) X.473948 Y.4103308

Mapa gehienetan Puntal del Goterón izen okerra ematen zaio. Zenbait kartografiatan akotatzen den azpigailur bat ere aipa daiteke: **Antecima norte del Puntal de las Calderetas** (3064) X.473964 Y.4103364, baita, lepora jaitsi baino lehen bereiz daitekeen **Antecima suroeste del Puntal de las Calderetas** ere (3052) X.473848 Y.4103196.

- **Alcazaba** (3369) X.473344 Y.4102652

Iparraldean Alcazabak badu azpigailur bat, prominentzia gehiegi eduki ez arren, oso nabarmena dena, malda asko aldatzen delako eta iparraldeko kanuto bat haren ondora irteten delako. **Puntal del Goterón** du izena (3232) X.473487 Y.4102832. Puntal del Goterón honen iparraldeko gandor tentearen azpian badago mapetan akotaturik agertzen den bigarren mailako beste azpigailur bat, **Antecima noreste del Puntal del Goterón** (3066) deit genezakeena X.473696 Y.4103096. Alcazabaren kontrako aldean beste azpigailur bat identifika daiteke, **Antecima suroeste de Alcazaba** (3315) X.473136 Y.4102320.

■ *Mulhacén eta Alcazaba iparraldetik*





■ La Carihuela eta Veleta



■ Basahuntza Río Seco aldean

■ **Puntal de la Cornisa** (3316) X.473050 Y.4102087

Mapa batzuek Puntal de Siete Lagunas izen okerra ematen diote. Alcazabaren azpigailur bezala ere kontsidera liteke. Handik ekialdera abiatzen den mendi adarrean, hiru milatik gorako beste bi azpigailur identifikatu daitezke, hurrenez hurren: **Tajos Coloraos** (3296) X.473332 Y.4101896 eta **Peñón del Globo** (3289) X.473608 Y.4101824.

■ **Mulhacén** (3479) X.472400 Y.4101037

Tontor nagusi honen iparrekialdean azpigailur bat identifikatu daiteke eta, nahasteak nahaste, **Puntal de Siete Lagunas** du izena (3251) X.472692 Y.4101608. Kontrako alderantz, zenbait kota aipagarri aurkitzen ditugu: **Antecima sureste del Mulhacén** (3427) X.472504 Y.4100860, Laguna Hondera delakoaren zirkura asomatzen dena. Tontor nagusitik Loma del Mulhacén izeneko jarraitzen badugu, ordea, **Antecima sur del Mulhacén** aurkituko dugu berehala (3443) X.472392 Y.4100792 eta askoz beherago dagoen **Mulhacén II** izeneko erpin geodesikoa, egiazko gailurra ez dena (3362) X.472360 Y.4100040. Are hegoalderago beste kota bat identifikatu daiteke **Loma del Tanto** izenarekin (3038) X.473276 Y.4098536.

■ **Puntal de la Caldera** (3222) X.471012 Y.4101548

Gailur lerro nagusian baina tontor nagusia baino lehen, **Antecima oriental del Puntal de la Caldera** (3184) aurkitzen dugu X.471240 Y.4101504. Azken honen iparraldean, Juego de Bolos aldera doan gailurrerian eta leporik apalena erdietsi baino lehen, **Antecima norte del Puntal de la Caldera** identifikatu daiteke (3033) X.471584 Y.4101824. Gailurreria horri segika, **Juego de Bolos** ezaguna dago (3021) X.471520 Y.4102096. Gailur nagusiaren mendebaldean eta Laguna de la Calderaren gain-gainean, prominentzia gutxiko **Antecima occidental del Puntal de la Caldera** identifikatu dugu, mendi-lepoa bitan banatzen duena (3153) X.470740 Y.4101428. Laguna de la Caldera, hango aterpe eta pistaren inguruetan beste "kota" xume batzuk ere identifikatu daitezke hiru mila metro baino gorago, baina nekez kontsidera litezke "gailurrak".

■ **Loma Pelada** (3183) X.470552 Y.4100996

Egia esan, Loma Pelada Alpujarretako isuraldetik datorren hegiz luzea da, baina punturik gorenari ere ematen diogu izena. Hegoaldean **Antecima sur 1 de Loma Pelada** identifikatu daiteke (3179) X.470536 Y.4100736, baita **Antecima sur 2 de Loma Pelada** askoz beherago (3022) X.470308 Y.4100008, Pillavientos aterpetoxa eta pista baino apur bat beherago. Kontrara, iparraldean eta Laguna Largaren gainean, jadanik Sierra Nevadaren gailur lerro nagusian, **Antecima norte de Loma Pelada** edo **Puntal de Laguna Larga** aurkitzen dugu (3182) X.470452 Y.4101256. Azken honen mendebaldean eta lepora heldu baino lehen, **Antecima oeste de Loma Pelada** aurkituko dugu (3115) X.469900 Y.4101204, jadanik Crestones de Río Seco izeneko gailurrekin nahasirik.

■ **Crestones de Río Seco** (occidental edo 1) (3152) X.468832 Y.4101216

Egia esan Crestones de Río Seco izena, Cerro de los Machos eta Loma Pelada artean, Valdeinfierno eta Alpujarra bereizten dituen

gailur lerroari esaten zaio. Gailurrik altuena mendebaldekoa bada ere, beste bospasei identifikatu daitezke, hurrenez hurren, era honetan: **Crestones de Río Seco 2**, (3147) X.469048 Y.4101100, Raspones de Río Seco izeneko gailur lerroaren elkartze puntuan hain zuzen ere; **Crestones de Río Seco 3** (3108) X.469312 Y.4101128, **Crestones de Río Seco 4** (3102) X.469488 Y.4101172, **Crestones de Río Seco 5** (3121) X.469644 Y.4101200. Azken honen iparraldean, **Mirador de Ferrer** izeneko gailurra asomatzen da Laguna Largaren gainera (3049) X.469704 Y.4101420.

■ **Raspones de Río Seco** (3141) X.469008 Y.4100732

Crestones de Río Seco delako balkoira heldu baino lehen, **Raspones de Río Seco norte** azpigailurra identifikatu daiteke, pistaren gainean (3132) X.469000 Y.4100896. Tontor nagusiaren kontrako aldera, ordea, beste hiru kota identifikatu daitezke gutxienez gailurrerian: **Raspones de Río Seco sur 1** (3137) X.469040 Y.4100672, **Raspones de Río Seco sur 2** (3099) X.469148 Y.4100524 eta **Raspones de Río Seco sur 3** (3035) X.469352 Y.4100252.

■ **Los Machos** (3327) X.468320 Y.4101484

Gailur lerro nagusian azpigailur bat identifikatu daiteke Collado del Lobo delakoaren gainean: **Antecima oriental de los Machos** deituko duguna (3179) X.468624 Y.4101380. Iparraldera begira, ordea, beherago Loma del Lanchar osatuko duen adarrean, 3000 m baino kota altuago bat aurkitzen dugu, **Tajo de los Machos** izenaz bereizi daitekeena (3084) X.468725 Y.4102144. Inoiz Veta Grande izena eman bazaio ere, berez, izen horretakoa Corral de Veletatik Valdeinfiernora pasatzeko lepoa dela dirudi, metro batzuk beherago.

■ **Veleta** (3396) X.467600 Y.4101360

Iparraldeko aristan, Posiciones del Veleta izeneko aurkintzan pistak egiten duen bihurtune markatuaren azpian, el Veredón izeneko bidexka gure mendiaren hormen azpitik eskegita, Corral del Veleta izeneko zirkun banarretzen da. Bide hau gandorretik banatzen den puntutik hurbil, ia nabaritzen ez den hiru milatik gorako kota bat aurkitzen dugu, **Tajos del Campanario** izenekoetarik garaiena (3047) X.467352 Y.4102800. Ekialdeko hormaren azpian eta Los Machoseko lepoa baino lehen, beste hiru azpigailur aurkituko ditugu: **Salón** (3352) X.467676 Y.4101376, **Campanario** (3328) X.467772 Y.4101356 eta **Zacatin** (3323) X.467984 Y.4101344, itxura izugarria duten arren, Los Machos aldetik zailtasunik gabe igo daitezkeenak.

■ **Puntal de Loma de Púa** (3226) X.467080 Y.4100500

Izen horretako mendi adar luzearen punturik gorena da. Mendi honek, halaber, baditu mendebaldean bereiz daitezkeen bigarren mailako beste bi kota: **Antecima central del Puntal de Loma de Púa** (3213) X.466920 Y.4100424 eta **Antecima occidental del Puntal de Loma de Púa** (3226) X.466792 Y.4100364.

■ **Tajos de la Virgen** (3239) X.466472 Y.4100300

Tontor altuena baino ekialderago, ordea, kota apalago bat bereiz daiteke, **Tajos de la Virgen noreste** (3225) X.466564 Y.4100408 eta kontrako aldean, ondoko lepoaren gainean, **Tajos de la Virgen suroeste** (3215) X.466360 Y.4100120.

■ **Tajos del Nevero oriental** (3206) X.466060 Y.4099940

Hegoaldeko maldetan amiltzen den mendi adarrean bigarren mailako kota bat bereiz daiteke 3000 metrotik gora: **Cerro del Nevero** (3065) X.466060 Y.4099660. Gailu lerro nagusira itzulirik, mendebalderago, oso ezaguna den **Fraile de Capileira** izeneko monolitoa aurkituko dugu (3180) X.465836 Y.4099944, Sierra Nevadako hirimila zail bakarra (III⁺). Egia esan, harkaitz zut hau beste bi kota xumeren artean dago, **Antecima oriental del Fraile de Capileira** lepo malkartsutik hurbil (3175) X.465860 Y.4099940 eta **Antecima oriental del Fraile de Capileira** (3186) X.465800 Y.4099952, Frailea bera baino metro batzuk altuagoa.

■ **Tajos del Nevero central** (3198) X.465512 Y.4099968

Haren ekialdean apur bat apalagoa den **Tajos del Nevero occidental** bereiz daiteke (3193) X.465392 Y.4099908. Bigarren mailako gailur honetan bereizten dira hirimilak dituzten mendebaldeko Sierra Nevadako mendi adar biak: Cerro del Caballo alderakoa iparrean eta Tajos de los Machos aldera doana hegoalderago. Lehenbizikoan, Tozal del Cartujotik bereizten gaituen lepoa baino lehenago, bi kota aurki daitezke: **Cima este de la Cuerda de la Dehesa** (3104) X.464868 Y.4099832 eta **Cima oeste de la Cuerda de la Dehesa** (3113) X.464616 Y.4099684. Bigarrenean, Elorrieta aterpe zaharren gainean doi, plubiometro batez hornitua, **Pico Elorrieta** aurkituko dugu lehenik (3175) X.465240 Y.4099752. Eta handik behera, Tajos de los Machoseko lepora jaitsi baino lehen, gutxienez lau kota bereiz daitezke hiru milako altitudetik gora: **Cima norte de la Loma de Cuerda Alta** (3132) X.465016 Y.5099368, **Cima central norte de la Loma de Cuerda Alta** (3078) X.464316 Y.4099016, **Cima central sur de la Loma de Cuerda Alta** (3053) X.464432 Y.4098640 eta **Cima sur de la Loma de Cuerda Alta** (3013) X.464304 Y.4098164.

■ **Tajos de los Machos** (central) (3086) X.463960 Y.4096950

Gailurrik altuenera heldu aurretik bigarren mailako bi kota bereiz daitezke: **Tajo de los Machos norte 1** (3072) X.464108 Y.4097340 eta **Tajos de los Machos norte 2** (3053) X.464120 Y.4097740. Kontrako norabidean, hegoaldera, **Tajos de los Machos sur** ere antzeman daiteke (3056) X.463660 Y.4096584, maparen batek Cerrillo Redondo izen okerra ematen diona.

■ **Cerrillo Redondo** (3024) X.463100 Y.4095936

Hegoalderantz oraindik beste kota bat ere antzeman daiteke hiru mila metrotatik gora, **Antecima suroeste de Cerrillo Redondo** deitenez (3015) X.463040 Y.4095756. Hortik aurrera, mendilerroa Loma de Cañar-en behera amiltzen da Lanjarón eta Cañar herrietara, metroak eten gabe galdurik.

■ **Mulhacéngo iparraldea Puntal de Siete Lagunas aldetik**



■ *Picón de Jérez izeneko erpinuean*

■ *La Calderako aterpea*



Atzera itzulirik, Elorrieta aterpe zaharren gainean utzi dugun beste lerroa berrartuta, Cerro del Caballo aldera abiatzen gara berriz ere.

■ **Tozal del Cartujo** (3152) X.464092 Y.4099572

Maparen batean Cascajar izena ere ematen zaio. Tajos Altoseko lepora jaitsi baino lehen beste hiru kota aurkitzen ditugu hiru mila metrotik gorakoak: **Antecima suroeste 1 del Tozal del Cartujo** (3095) X.463784 Y.4099344, **Antecima suroeste 2 del Tozal del Cartujo** (3113) X.463544 Y.4099084 eta **Antecima suroeste 3 del Tozal del Cartujo** (3113) X.463260 Y.4098600, Tajos de Peñón Colorado izeneko ebakien gainean.

■ **Tajos Altos edo Loma Mediana** (3003) X.462580 Y.4098140

El Caballora doan gailur lerro honetan kota ugari dago, baina bakarra da hiru mila metrotik gorakoa, Laguna Cuadrado lepoaren gaineko lehena hain zuzen ere.

■ **Cerro del Caballo** (3011) X.460988 Y.4096492

Sierra Nevadako azkenengo hirimila da Cerro del Caballo. Hortik aurrera, gailur lerroa Lanjarón herrirantz galtzen du altuera eta amaitu egiten da. □

ERABILITAKO ITURRIAK:

ALEJOS, Luis: *Montañas del Sur, Rutas Pyrenaica*, Federación Vasca de Montaña, Bilbao, 1991.

CEBALLOS, Francisco & BOCANEGRA, Rafael: *Sierra Nevada. La Alpujarra. Mapa y guía excursionista*, escala 1:40000, Editorial Alpina, Barcelona, 1999.

BUENO PORCEL, Pablo: *Sierra Nevada, Guía Montañera*, Universidad de Granada, Granada, 1987.

Presidencia del Gobierno. Instituto Geográfico Nacional. Secretaría de Estado de Turismo. Consejo Superior de Deportes: *Sierra Nevada. Granada (Estación invernal y Alpujarras)*, escala 1:50000, Federación Española de Montañismo; Dirección General de Empresas y Actividades Turísticas, Madrid, 1981.

Presidencia del Gobierno. Dirección General del Instituto Geográfico Nacional: *Mapa Topográfico Nacional de España, 1027-II (Picón de Jérez), 1027-III (Pico del Veleta), 1027-IV (Trevélez)*, escala 1:25000, Madrid, 1985 eta 2004.

SIERRA VELASCO, Antonio & LUQUE ESPINOSA, Fernando & HARO BARDECI, Carlos Javier de: *Sierra Nevada, parque nacional. Mapa y guía 1: Valle del Genil*, escala 1:25000, Editorial Penibética, Granada, 1999.

GARCÍA GALLEGO, Juan Carlos: *Excursiones por el sur de España* (1, 2), Ediciones Desnivel, Madrid, 1998.